


DENA

geldita zeneko
egunak



Pixelatl

Etxean irakurtzeko liburuxka bat da honakoa: gurasoek eta seme-alabek beraien zalantzak elkartrukatzeko baliabide izan nahi luke. Berrogeialdiari buruzko informazio gehiago izateko, Munduko Osasun Erakundearen orrialdera jo. Hona hemen lotura: <https://www.who.int/es>.



Behin batean, izan zen
egun bat ikastetxeak
itxiko zizkigutela esan
zigutena. Zenbait astez
ezingo omen genuen
etxetik atera




Hurrengo egunean, leihora hurreratu nintzenean
frogatu nuen kaleak hutsik zeudela.





Asperrak jota zegoen
nire anaia eta goibel,
jolastu ezin genuelako.

Nire gurasoak
kezkatuta zeudela ere
konturatu nintzen.
Antza, gaixotasun oso
kutsakor bat zebilen
kalean eta horrek
zeharo beldurtu
ninduen.



“Zergatik gertatzen da hau?”
galdetu zuen nire arrebak.

Aitak, medikuak
jakinarazitakoa
kontatu zigun.



“Koronabirusa da honen erruduna”, esan zuen
medikuak. Duela zenbait hilabete agertu zen birus berri
hau eta mundua hankaz gora jarri du orduz geroztik.



“Ko, ko, ko,
koro... zer?”


“Zer da birus
bat?”

“Birusak izaki txiki-txikiak dira, ikustezinak gure begietara.
Gure gorputzean sartzen badira, kutsatu egiten gaituzte eta
gaixotu egiten gara”.

Kutsatuta dauden pertsonak barruan
daramate birusa, eta eztulka hasten
direnean edo hitz egiten dutenean airean
zabaltzen dute. Beste pertsona baten
aurpegira iritsiz gero, pertsona hori ere
kutsatu egin daiteke.



Birus mota asko daude munduan. Horietako batzuk oso ohikoak eta kutsakorrak dira. Gripea, adibidez, birus mota bat da eta hura dugunean eztarriko minak ahultzen gaitu, eztulka hasten gara, eta sukarra igotzen zaigu. Egun batzuetarako ohera bidaltzen gaitu, atsedena hartu, eta osatzen garen arte”.



Orduan, gogoratu nintzen nire anaia behin gaixo egon zela.



**Gure gorputzek birusei aurre egiten diete
eta horren ondorio dira eztula eta sukarra.**

Eta zu, gaixotu zara inoiz?

Hauetako zein sintoma izan dituzu? borobildu itzazu:



Buruko
mina




Sukarra



Eztula



Eztarriko
mina



Begiak negarti



Gorputz txarra



Muki pila bat

Beste sintomarik izan duzu? Idatzi ezazu zein: _____

Zenbat denbora pasa zenuen ohean
guztiz osatu zinen arte?
Gogoratzen zara?

Egun 1

2 edo 3
egun

4, 5
edo 6
egun


7
egunetik
gora



Orduan, esan nuen:
**“Nire anaia eta biok gaixorik egon gara lehen ere,
baina sekula ez digute agindu etxetik ez ateratzeko...”**



**Amak azaldu zidan birus hau berria dela.
Aiton-amonei bereziki eragiten diela,
eta arnasa hartzea eragozten diela.**



**Horregatik, batzuetan ospitalera joan
beste erremediorik ez dute izaten.**

Lehendik gaixotasunen bat zuten pertsonentzat ere oso arriskutsua omen da. Diabetea duten pertsonentzat, adibidez. Pertsona hauek 'arrisku taldea' osatzen omen dute.



hipertentsioa



**gehegizko
gizentasuna**




**biriketako
gaixotasunak**



diabetea

Etengabe sortzen dira birus berriak, baina normalean ez dugu haien berri izaten. Oraingo birus honek, ordea, ezustean harrapatu gaitu.




Coronabirusa deitzen diogu, baina SARS Co-V2 edo COVID19 ere deitzen diote zenbaitek. 2019ko abenduan agertu omen zen Txinan.

Denak aldi berean gaixotzen badira, ospitaleetan ez dute denak sendatzeko adina ohe. Hori da zenbait herrialdetan gertatu dena.



Herri berean pertsona askok gaixotasun bera dutenean, egoera horri epidemia deitzen zaio.

**Zenbat eta
pertsona
gutxiago gaixotu,
hobeto zaindu
ditzakete
ospitaleetan.
Horregatik eskatu
digute etxean
gelditzeko: ahalik
eta pertsona
gutxien kutsatu
daitezen.**



“Orain ulertu dut, aita”.




**Eta aitak erantzun zidan:
“Etxean geratzeaz gain,
eskuak sarri-sarri
garbitzea ere komeni da.
Horrela ez da inor kutsatuko”.**





**Ba al dakizu
eskuak nola garbitzen diren?**

Marrazkien alboan zenbakia jarriz, ordenatu ezazu
pausoz pauso eskuak nola garbitu behar diren.



Birusa zabal ez dadin,
ahoa estaltzea komeni da.
Doministiku edo ez tul egiten
dugunean, jarri ukondoaren
barruko aldea ahoan.



Orduan, aproba egin nuen.
Besabarrua ahoaren parean
jarri eta ez tulka hasi nintzen.
A ze barreak egin nituen!
Ea, saia zaitez zu ere!

**Eta kalera ateratzen garenean
beste pertsonengandik bi metrotara ibili behar dugu,
deskuidoan ez kutsatzeko.**




Zabaldutako besak eta egin aproba etxean!

Azalpenaren bidez hitz berri pila bat ikasi nituela konturatu nintzen.

Ea, hemen zenbait hitz dituzu eta marrazkiak aldamenean.

Lortu itzazu hitzak eta marrazkiak.



**Arrisku
taldea**



Birusa



Epidemia



Kutsatu



Isolamendua





Nire aitak esan zidan, isolamenduak irauten duen bitartean etxean denek egin beharko dugula ahalegin gehiago. Zarata gutxiago egiten saiatu beharko dugula, besteak beste...

Amona faltan sumatzen nuela esan nien gurasoei eta
haiek ere ni ikusteko irrikitan omen daude.
Telefonoz hitz egiten dugu tarteka eta asko pozten dira
nire ahotsa entzutean.



Lagundu iezaiozu untxitxoari amon-aitonen etxera iristen,
labirintua zeharkatuta.

Geroztik, egunero deitzen diet amon-aitonei,
ordu berean. Izeba-osabekin eta
lagunekin ere hitz egiten dut tarteka.



A ze gogoia dudan haiek denak ikusteko!

Artista askoren bolondres lanari esker egin ahal izan dugu liburu hau.
Denen denbora eta maitasunari zor diogu esku artean duzuna.

Ideia, garapena eta

koordinazioa:

Pixelatl / José Iñesta,
Christian Bermejo y Jordi
Iñesta

Idazlea:

Jordi Iñesta

Ilustratzaileak:

Julieta Colás
Oscar Trejo
Boli Nolasco
Marcos Ovando
Carlos Sallas
Gaby Zermeño
Daniel Farrera
Ernesto Molina
Jessie Arias
Aida Sofia Barba
Julian Hernández
Robin Morales
Heis González
Oscar Pinto
Carlos Tron
Verde Agua

Lupita Guillén
Ana Karen Murillo
Venisa del Águila
Oscar Hernández
Raven Bazan
Sant Arellano
Krayón Rojo

Koordinazioa

eta editoretza:

Diana Pérez

Estilo zuzenketak:

Karen Acosta

Kontseilaria:

Mariana Cano

Azaleko tipografia:

Carlos Cano

Euskarazko bertsioa:

Dixidu Diseinu Grafikoa

Itzulpena:

Jon Martin Etxebeste

Kontakizun honetako
pertsonaiak “El día que
todo se movió” izeneko
liburuan oinarrituak
daude. 2017ko lurrikaren
ondoren argitaratutako obra
kolektiboa izan zen. Honako
helbidean topatu daiteke:
<https://bit.ly/Px17-20>

Irabazi asmorik gabeko
proiektua da honakoa.
Aske izan osorik edo
zatika erabiltzeko, beti
ere autoretza aipatuz eta
helburu komertzialetara
bideratu gabe. Edozein
zalantzarekin, idatzi
info@pixelatl.com
helbidera.



COVID-19aren pandemia honek adin guztietako pertsonen eragiten die, baita haurtxoek ere. Gurasoen kezka hautematen dute, baina beraien sentimenduak azaleratzeko arazoak dituzte zenbaitetan.

Liburu hau sortzaile mexikar batzuen ekimenez sortu zen eta haurrei eragitea du helburu. Hartu beharreko neurriak ulertu eta praktikatu ditzaten sortu da, baina baita hausnartu dezaten eta sentitzen dutena atera dezaten ere.

